

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroak erakartzea, gure kasuan, ez da gauza erraza, izan ere, segmentu konkretu bati eskaini behar diegu gure produktua. Baina pertsona espezifikoko haientzat, gure existentziaz jabetzeko, debaldeko konferentziak, publizitatea eta marketing kanpaina egingo ditugu. Hauetan, eman nahi dugun zerbitzuaren funtsezko informazioa jarriko dugu, gure ezaugarri garrantzitsuenak aipatuz. Gainera, sarean oso aktibo egongo gara. Izan ere, webgune bat sortuko dugu, zeina oso eguneratuta egongo den. Honetan, gaur egungo gai interesgarrien inguruan gauza ezberdinak publikatuko ditugu, bezeroak erakarriak senti daitezten. Tratu zein zerbitzu on bat eskainiko diegu bezeroei, hortaz, aplikazioarekin eta web gunearekin lortutako emaitzak baloratuko ditugu, berrikuntzak egiteko. Horrela, bezeroak mantendu ahal izango ditugu, informazio berria ematen dugulako. Baina ez dugu propaganda guztia Interneten bidez zabalduko, fisikoki, adibidez postontzietan, kartelak edo liburuxkak ere igorriko ditugu.